



Euskal Herrian, 2018ko ekainaren 25ean

Haurreskolak Partzuergoan egoerak, aurten ere, gainezka egin du

Iaz zerrenden irekierarekin izandako kaos egoera errepikatzen ari da, enpresa ez baita gai ikasturte bukaerako hezitzaileen ordezkapenak betetzeko

STEILAS sindikatua Haurreskolak Partzuergoan ematen ari den egoera salatu beharrean dago, berriz ere.

Haurreskoletan behar dituzten ordezkapen guztiak betetzeko gaitasun falta da salatu behar duguna, nahiz eta ordezkoen zerrendan milaka hezitzaile egon lanerako deia zain.

Oraingoan ere Haurreskolak Partzuergoaren kudeaketa arazoak agerian geratu dira. Mobilizazioen ostean enpresak hartutako konpromiso nagusia ezerezean utzi du bere kudeaketa eredu eskasak, aurreikuspen falta nabarmenaren ondorioz. Baliabide pertsonalak eta informatikoak, besteak beste, eguneratu eta egokitzen ez dituzten bitartean, egoerak okerrera egingo du, STEILAS-ek azken urteetan hainbatetan salatu izan duen bezala.

Beste urte batez errepikatzen ari den egoera honek haurreskoletako hezitzaileen, kudeaketako langileen, familien eta haurren ezinegona areagotu besterik ez du egiten. Haurreskola batzuetan 4 hezitzaile falta izatera heldu dira egun hauetan (ordezkoak bidaliko zituztela baieztatu ondoren). Gabezia hauen arduradun haurreskolan gelditzen diren hezitzaileak bihurtu ditu enpresak, beraien esku utzi baitu egoera kudeatzeko erantzunkizuna. Enpresak egoera justifikatzeko haurreskoletara bidaltzen dituen mezuetan zortearen menpe uzten ditu hurrengo egunetarako ordezkapenak. Hau onartezina da.

Bitartean, pertsonal kudeaketako langileak gainezka daude, beraien lan-karga konponbide errealik eman gabe izugarri handitu baita azken hilabete eta ikasturteetan.

STEILAS Sindikatuak pertsonal kudeaketako langileen lan-zama jasanezinarekin eta hezitzaileek pairatzen duten muturreko egoerarekin bukatzea exijitzen dio Haurreskolak Partzuergoari, eta horretarako hartu beharreko erabakiak eta neurriak ahalik eta azkarren hartu ditzala. Nahikoa da.

HAURRESKOLAK PARTZUERGOAN KONPONBIDEAK ORAIN!



www.steilas.eus

Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus